



Datuak Babesteko

Euskal Bulegoa

Agencia Vasca de

Protección de Datos

EBAZPENA, 2019ko irailaren 12koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariarena, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko hiru lanpostu zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko dei egiten duena.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak xedatzen du DBEB zuzenbide publikoko entea dela, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoak dituela, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko dituela bere eginkizunak.

Urriaren 18ko 309/2005 Dekretuaren bitartez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutuetako 10. artikulua onartu zen, eta bertan ezarritakoa betetzearren, 2005eko azaroaren 28ko Ebazpenarekin zuzendariak Bulegoaren egitura organikoa garatu zuen, bulegoaren unitateak eta horiei esleitutako funtzioak zehaztuaz.

Bestalde, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren (DBEB) gaur egungo lanpostu zerrenda Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren Datuak Babesteko Euskal Bulegoko lanpostu zerrenda onartzen duen Ebazpenaren hirugarren alaketari buruzko 2018ko azaroaren 22ko Ebazpenaren bidez onartu zen (EHAA — 2018ko abenduaren 3a).

Egun hutsik daude (titularrik gabe) zenbait letratu instruktore-ikuskatzaile lanpostu , eta zerbitzuak lehentasunezko interesa duenez eta horiek betetzeko asmoz, lanpostuok zerbitzu eginkizunen bidez bete nahi dira, honako arauak xedatutakoarekin bat: Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 54. artikulua eta Euskal Herri Administrazioetako Funtzionarioen Lanpostuak betetzeko araudia onartzeko urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 47. artikulua eta hurrengoak.

Ondorioz, eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak esleitzen dizkidan eskumenak baliatuz, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa: Onartzea Ebazpen honetako I. Eranskinean aipatzen diren “letratu instruktore-ikuskatzaile” lanpostuak zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko deialdia arautuko duten oinarriak.

Bigarrena: Agintzea argitaratzeko honako deialdi hau DBEBren iragarki-oholean eta web orrian 2019ko irailaren 16an.



Hirugarrena: Ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio DBEBren zuzendariari, hilabeteko epean, Ebazpena DBEBren web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; edo, zuzenean, aurkez dezakeela administrazioarekiko auzi errekurtsoa, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 12a

Margarita Uría Etxebarria.

Zuzendaria.



I. ERANSKINA

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOKO HIRU LANPOSTU ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK.

1. Deitu diren lanpostuak, bete nahi direnak.

1.1. Hiru “letratu instruktore-ikuskatzaile” lanpostu, I.1 Eranskinean adierazitako betekizunekin.

2. Parte hartzeko bete beharreko baldintzak.

2.1. Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute, oinarri hauetan jasota dauden betekizunak betez gero, otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 2.1 artikulua aipatzen dituen administrazio edo organoetako eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoko bertako karrerako funtzionario guztiek.

a) Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra, lurralde historikoetako foru-organoak, Euskal Autonomia Erkidego barruko toki-administrazioak eta, zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko sortu bazituzten, herri-administrazioen menpeko edo haietara loturiko edonolako erakunde publikoak.

b) Eusko Legebiltzarra.

c) Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

d) Arartekoa.

e) Lan Harremanen Kontseilua.

f) Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea.

g) Kooperatiben Goren Kontseilua.

h) Ebazpen Batzordea.

i) Interes ekonomiko eta profesionalak ordezkatzeko dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide publikoko korporazioak.

j) Otsailaren 25eko 2/2004 Legeko 2.1 artikuluan jasotako erakunde edo antolakundeetarako edozein.

2.2. Deialdia arautzen duten oinarri arautzaileotan eta deitutako lanpostuari buruzko I.1 Eranskinean eskatzen diren betekizun guztiak beteta izan beharko dira deialdia argitaratzen den datan. Baldintza horiek esleituriko lanpostuak hartzeko izendapena egin arte bete beharko dira.

2.3. Oinarrietako 2.1 atalean aipatutako funtzionarioek bakar-bakarrik hartu ahal izango dute deialdi honetan parte, zerbitzu aktiboan edo lanpostuaren erreserba dakarren bestelako egoeraren batean badaude; ez, ordea, eginkizun-etenaldi egoeran badaude.

2.4. Parte hartzeko bete behar diren gainontzeko baldintzak egiaztatzeko, jatorrizko administrazioaren egiaztagiria (I.3 Eranskineko eredu) aurkeztu beharko da eskabidearekin batera.

3. Eskabideak aurkeztea eta onartzea.

3.1. Deialdi honetan parte hartzeko eskabideak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari zuzenduko zaizkio eta 2019ko irailaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira, I.2. Eranskinean dagoen eskabide eredu erabilita.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira 2.3 eta 2.4 oinarrietan lanpostua eskuratzeko ezarritako baldintzak betetzen direla eta alegatzen diren merezimenduak egia direla egiaztatzen duten dokumentuak.



3.2. Prozesuan parte hartzeko eskabideak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren erregistroan aurkeztu beharko dira, Bulegoaren egoitzan bertan (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3. solairua, 01008, Vitoria-Gasteiz).

Horretaz gain, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako eran ere aurkeztu ahal izango dira. Posta bulegoetan aurkezten diren eskabideak kartazal irekian aurkeztuko dira, posta bulegoko funtzionarioak data eta zigilua jarri ahal izateko, eta eskabideak aurkezteko epearen barruan ziurtatu ahal izateko. Eta hori izango da eskabideak posta bulegoan aurkeztu ziren egunean aurkeztu zirela egiaztatzeko modu bakarra.

4. Merezimenduak baloratzea. Hiru letratu instruktore-ikuskatzaile lanpostu.

4.1. Eskuratu nahi den lanpostuko eginkizunekin zer ikusia duen eginkizunak dituen lanpostu batean egindako lana.

4.1.1. Eskuratu nahi den lanpostuko eginkizunekin zerikusia duen lana egin izanagatik 5,40 puntu esleituko dira gehienez, eta lanpostuok pertsonal funtzionario edo lan-itunpeko legez bete badira beti ere, izan lanpostuetako titular gisa zein eurretan behin-behineko atxikipenez edo zerbitzu eginkizunetan jardunda azken 10 urteetan. Puntuak hileko:

- Eskuratu nahi den lanpostuko eginkizunekin zerikusi handia duen lana egin izanagatik 0,045 puntu. Atal honetan, izandako lanpostuetako eginkizunen edukia eta lortu nahi den lanposturako I.4 Eranskinean agertzen diren eginkizunen edukia, monografiaren arabera, hein handian bat etortzea hartuko da kontuan.

- Eskuratu nahi den lanpostuko eginkizunekin zerikusi ertaina duen lana egin izanagatik 0,030 puntu. Atal honetan, izandako lanpostuetako eginkizunen edukia eta lortu nahi den lanposturako I.4 Eranskinean agertzen diren eginkizunen edukia, monografiaren arabera, hein ertainean bat etortzea hartuko da kontuan.

- Eskuratu nahi den lanpostuko eginkizunekin zerikusi txikia duen lana egin izanagatik 0,015 puntu. Atal honetan, izandako lanpostuetako eginkizunen edukiak eta lortu nahi den lanposturako I.4 eranskinean agertzen diren eginkizunen edukiak, monografiaren arabera, azaleko lotura baino ez izatea hartuko da kontuan, edo, aurreko kategorietakoa izan gabe, eginkizunak talde bereko lanpostuetan betetzea.

4.1.2. Prestakuntza-edo sakontze-ikastaroetan, euskara ikasten, norbere zereginetarako baimen egoeran, aldi baterako ezgaitasun egoeran edo antzeko beste egoera batzuetan emandako denbora jarduneko zerbitzu modura kontatuko da.

4.1.3. Aldi berean betetako zerbitzuak ez dira birritan kontatuko.

4.2. Titulazio akademikoak.

4.2.1. Hala titulazio akademiko ofizialak, unibertsitateek edo erakundeek emandako masterrak, diplomak eta tituluak direla-eta, 2 puntu eskuratu ahal izango dira gehienez, beti ere bete nahi den lanposturako duten baliagarritasunaren arabera, eta lehiaketan parte hartzeko behar den kidego edo eskalan sartzeko eskatutakoez bestelakoak izanagatik, maila akademiko bera edo handiagoa badute. Titulazio-talde ezberdinetakoak izanik ere, denei irekita dagoen lanpostu baterako lehiatzen diren kidego eta eskaletako parte hartzaileak salbuetsita daude. Azken kasu honetan, lehiatzen diren kidego edo eskalan sartzeko beste batzuei eskatzen zaizkien titulazio ofizialak ez zaizkio merezimendu modura baloratuko kidego apalagokoari.

4.2.2. Merezimendu hori ondoko baremoaren arabera baloratuko da:

- Doktore titulua: gehienez 2 puntu.



- Lizentziatu, Arkitekto edo Ingeniari titulua (Graduko unibertsitate titulua edo baliokidea / MECES 3. maila): gehienez 1,5 puntu titulu bakoitzeko.

- Diplomatu, Arkitekto edo Ingeniari titulua (Graduko unibertsitate titulua edo baliokidea / MECES 2. maila): gehienez 1 puntu titulu bakoitzeko.

- Unibertsitateen master, diploma eta titulu propioak: gehienez puntu 1 titulu bakoitzeko.

4.2.3. Merezimendu gisa alegatutako goragoko beste titulu bat lortzeko beharrezko tituluak ez dira baloratuko.

4.3. Prestakuntza-eta sakontze-ikastaroak gainditzea.

4.3.1. Deialdiko lanpostuari dagokien eginkizunekin edo lanpostua betetzeko eskatzen diren trebetasunekin zerikusia duten arloetan burututako sakontze-ikastaroak –IVAPek eta/edo beste administrazio publikoren batek antolatu edo homologatuak, edo prestigio aitortua duten erakundeek emanak– gainditzeagatik 2 puntu emango dira, gehienez. Azken 10 urteetan egindako ikastaroak baino ez dira hartuko kontuan, ondoko baremoaren arabera:

- 20 ordutik 39ra bitarteko iraupena duten ikastaroak: 0,20 puntu, ikastaro bakoitzeko.

- 40 ordutik 79ra bitarteko iraupena duten ikastaroak: 0,50 puntu, ikastaro bakoitzeko.

- 80 ordu edo gehiagoko iraupena duten ikastaroak: 0,75 puntu, ikastaro bakoitzeko.

4.3.2. Ikastaroak noiz egin diren edo zenbat ordukoak izan diren zehazten ez duten ziurtagiriak ez dira kontuan hartuko.

4.4. Antzinakotasuna.

4.4.1. Administrazio publikoetan egindako hilabeteko lanagatik 0,012 puntu, gehienez 2,8 puntu.

4.4.2. Ondorio horietarako, karrerako funtzionario egoerara heldu baino lehenago eman diren aitortutako zerbitzuak ere baloratuko dira. Aldi berean betetako zerbitzuak ez dira birritan kontatuko.

4.5. Finkatutako gradu pertsonala.

Parte hartzeko aukeratutako kidego edo eskalan gradu pertsonala finkatuta izateagatik 2,8 puntu emango dira gehienez, honako era honetan banatuta:

a) Eskatu den lanpostuaren maila baino gradu handiagoko edo maila bereko gradu pertsonala izatearren: 2,8 puntu.

b) Eskatu den lanpostuaren maila baino gradu bat gutxiagoko gradu pertsonala izatearren: 1,8 puntu.

c) Eskatu den lanpostuaren maila baino gradu bi edo bi baino gutxiagoko gradu pertsonala izatearren: 0,8 puntu.

4.6. Euskara.

4.6.1. Lanpostuek 4. hizkuntza eskakizuna badute, eta ez badute igarotako derrigortasun datarik, euskara merezimendua izango da eta gehienez ere 4 puntu arte baloratuko dira. Honako puntuazioa emango zaie:

- 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatzen bada: 1,8 puntu.

- 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzen bada: 2,5 puntu.

- 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzen bada: 3,5 puntu.



- 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzen bada: 4 puntu.

4.6.2. Lanpostuek 4. hizkuntza eskakizuna badute, eta derrigortasun data igarota, nahitaez egiaztatu beharko da eskatutako hizkuntza eskakizuna.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak 43.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, derrigorrez 4. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak direnean, hautagaien artean ez badago 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatu duen inor, 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duten hautagaiekin bete ahal izango dira.

4.7. Argitalpenak.

Eskatutako lanpostuek berezko dituzten eginkizunekin zerikusia duten argitalpenak puntu 1 baloratuko dira gehienez:

- Prestigio profesional aitortua duten aldizkarietan: puntu 1 gehienez.
- Gainerako argitalpenak: 0,75 puntu gehienez.

4.8. Irakaskuntza eta ikerkuntza.

Deialdiko lanpostuei dagozkien eginkizunekin edo lanpostuok betetzeko eskatzen diren trebetasunekin zerikusia duten arloetan burututako irakaskuntza-eta ikerkuntza-jarduerengatik – IVAPEk eta/edo beste administrazio publikoren batek antolatu edo homologatuak, edo prestigio aitortua duten erakundeek emanak– 2 puntu emango dira, gehienez. Azken 15 urteetan egindako ikastaroak baino ez dira baloratuko, ondoko baremoaren arabera:

- Ikastaro ordu bakoitzeko 0,025 puntu, gehienez 1,5 puntu, beti ere eskatutako lanpostuek berezko dituzten eginkizunekin zerikusia badu ikastaroak.
- Kongresu, mintegi eta/edo jardunaldietan aurkeztutako komunikazioengatik edo bertan modu nabarmenean parte hartzeagatik, 0,25 puntu gehienez.
- Kongresu, mintegi eta/edo jardunaldietan aurkeztutako komunikazioengatik, 0,75 puntu gehienez.
- Ikerketa proiektuetan parte hartzeagatik, puntu 1 gehienez.

4.9. Hizkuntzak.

Ingelesa, frantsesa eta/edo alemana jakiteagatik puntu 1 eskuratuko da gehienez:

- Europako Erreferentzia Markoaren B2 maila edo asimilatua: 0,75 puntu.
- Europako Erreferentzia Markoaren C1 maila edo asimilatua: puntu 1.

4.10. Konpetentzien balorazioa. Proba bat egin beharko da Ebaluazio Batzordearen aurrean, eta bertan lanpostuko ezaguerak eta trebetasun aipagarriak baloratuko dira, 1.4 Eranskinean ezarritako helburuen eta dimentsioen arabera: 7 puntu gehienez.

4.11. Gainditzeko, gutxienez 3,5 puntu egiaztatu beharko dira 4.10 atalean adierazitako proban.

5. Merezimenduak egiaztatzea eta merezimenduen erreferentzia data.

5.1. Dokumentazio osagarria.

DBEBk, egoki irizten badio, interesdunek alegatutako merezimenduak egiaztatzeko argibideak eta dokumentazio osagarria eskatu ahal izango die interesdunak lan egindako administrazioei edo interesdunei beraiei.

5.2. Erreferentzia data.



Deialdi hau DBEBren iragarki-oholean eta web orrian jartzen den eguna izango da merezimenduak baloratzeko erreferentzia data.

5.3. Egiatzatu gabeko merezimenduak.

Eskabidearekin batera berariaz alegatutako eta egiaztatutako datuak baino ez dira baloratuko.

6. Ebaluazio Batzordea.

6.1. Osaketa.

Balorazio Batzorde batek baloratuko ditu merezimenduak. Batzordeak kide hauek izango ditu:

- Lehendakaria: Manuel Valín López
- Kidea: Ana Aperribai Ulacia.
- Idazkaria: Román Intxaurtieta Madariaga.

Idazkariak hitz eta boto eskubidea izango du. Edozelan ere, bere eginkizunak burutzeko, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko administrazio zerbitzuen laguntza izango du.

7. Prozesua nola burutuko den.

7.1. Datuak eta eskakizunak bete diren egiaztatzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko administrazio-zerbitzuek Balorazio Batzordeko buruaren esku utziko dituzte aurkeztutako eskabideak eta horiei buruzko agiriak. Datuak Babesteko Euskal Bulegoko administrazio zerbitzuek batzordearen eginkizunak erraztuko ditu, aurkeztutako eskakizunak eta agiriak bete direla egiaztatuz. Ebaluazio Batzordeak berretsi beharko du, hala badagokio, oinarri hauetako 2. atalean ezarritako betekizunak betetzen direla. Eskakizunak betetzen ez dituztenak baztertu egingo dira, eta baztertuta daudela jakinarazi beharko zaie, zergatiak azalduz.

7.2. Merezimenduen balorazioa.

Ebaluazio Batzordeak baloratuko ditu dokumentu bidez egiaztatutako merezimenduak. Datuak Babesteko Euskal Bulegoko administrazio zerbitzuek behar duten laguntza administratiboa emango diete.

7.3. Probak egitea.

Lanposturako beharrezko gaitasunak (ezaguera eta trebetasunak) baloratuko dira. Horretarako, proba bat egingo da 1.4 Eranskinean ezarritako helburuei eta dimentsioei buruz.

Probak egiteko eguna eta ordua gutxienez bost egun natural lehenago jakinaraziko zaizkie parte hartzaileei.

Jakinarazpenean honako argibideak ere emango zaizkie: probaren iraupena, proba nolakoa izango den (testa, zenbait kasu ebaztea, gai bat garatzea eta abar) eta ea proba egiteko materiala erabili ahal izango den ala ez.

7.4. Esleipen proposamena.

Balorazio Batzordeak proba baloratuko du eta puntuazioa gehituko die gainontzeko merezimenduei, hautagaiak puntuaren arabera jarriko ditu hurrenkeran, prozesua nortzuk gainditu duten esango du eta DBEBren zuzendariari helaraziko dio proposamena, puntuaziorik handiena eskuratu duen hautagaia proposatuz.

Lehiaketan, oro har, puntu-berdinketarik balego, ondoko irizpideen arabera ebatziko litzateke:

- Merezimenduetan eskuratutako puntuazioa, deialdiko baremoan ezarritako gehienezko puntuazioaren arabera, gehienetik gutxienera.



– Merezimenduek puntuazio bera badute, deialdiaren oinarrietan adierazitako hurrenkeraren arabera:

- Parte hartzeko aukeratu den kidego edo eskalan karrerako funtzionario modura antzinatasun handiena izatea.
- Karrerako funtzionario modura antzinatasun handiena izatea.
- Azkeneko behin betiko lanpostuan eta Administrazioan antzinatasun handia izatea.

– Berdinketa apurtzeko beste irizpiderik beharko balitz, Balorazio Batzordeak ezarriko luke, merezimendu printzipioarekin bat.

7.5. Deialdiaren ebazpena.

7.5.1. Esleipen proposamena egin ostean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak jatorrizko administrazioan edo erakundean funtzio publikoaren esparruan eskumena duen organoaren baimen adierazia eskatuko du, beste administrazio publiko batean lanpostuetan edo eginkizunetan aritzeko.

Baimena jaso gero, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak zerbitzu eginkizunaren esleipena ebatziko du, eta parte hartzaileei eta jatorrizko administrazioei jakinarazteko aginduko du. Ebazpen horren aurka berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da, berau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

7.5.2. Jatorrizko administrazioak edo erakundeak baimenik eman ezean zerbitzu eginkizunerako, Balorazio Batzordeak puntuazio altuena lortu duen hurrengo hautagaia proposatu beharko du; eta berriro ekingo zaio 7.5.1 atalean aipatutako prozesuari.

8. Ondorioak, harreman juridikoa eta indarraldia.

8.1. Hautatutako pertsonak zerbitzu eginkizunetan esleituko dira, deitutako lanpostuetan aritzeko. Ebazpenak ondorio ekonomikoak eta administratiboak izango ditu funtzionarioa lanpostuan hasten den egunean bertan. DBEBn zerbitzu eginkizunetan dauden bitartean, bertako lan baldintzak ezarriko zaizkio, honako alderdietan izan ezik: sustapen profesionala eta zerbitzutik kentzeko zehapena.

DBEBk, ondo arrazoituz gero, erabaki dezake puntuaziorik altuena eskuratu duen pertsona ez hautatzea, baldin eta pertsona horrek ezin badu lanean hasi prozedura ebazten den egunean. Halakorik gertatuz gero, puntuaziorik altuena izan duen hurrengo pertsona hautatuko da.

Hautatutako pertsona zerbitzu aktiboan egon beharrean bestelako administrazio egoeraren batean badago, zerbitzu eginkizuna esleitzeko, berehala itzuli beharko da zerbitzu aktibora, eta itzultzen den une berean esleituko zaio zerbitzu eginkizuna. Ez badu hori egiten, eskubidea galduko du eta puntuaziorik altuena duen hurrengo pertsona hautatuko da.

8.2. Euskal Herri-administrazioetako Funtzionarioen Lanpostuak Betetzeko Araudia onartzeko den urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 51. artikuluari jarraiki, deialdi hau legez babesten duen figura da administrazio publikoen arteko zerbitzu eginkizunena.

8.3. Zerbitzu eginkizunen indarraldiak bertan behera geratuko dira Euskal Herri-administrazioetako Funtzionarioen Lanpostuak Betetzeko Araudia onartzeko den urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 49. artikuluan xedatutako zioei jarraiki, edo tartean dauden administrazio publikoek berariaz ezeztatzen dituztelako.



9. Datu pertsonalak babestea lehiaketaren kudeaketan.

9.1. Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen Europako Parlamentuarena eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 13. artikulua xedatutakoaren arabera, interesdunek eman dituzten datu pertsonalak bakar-bakarrik deialdi hau kudeatzeko eta horri lotutako eginbeharrekin zer ikusia duten egintzak gauzatzeko erabiliko dira. Helburuaren oinarri dira deialdiaren interes publikoa eta bertan parte hartzeko eskabidea.

9.2. Eskatzaileek berariazko adostasuna adierazten dute euren datu pertsonalak tratatu ditzaten deialdi honetan adierazitako moduan eta helbururako, bai eta datuak argitaratzeko ere, deialdiaren berezko izapideetarako.

9.3. Parte hartzeko eskabide-ereduetan gai horri buruzko argibideak jasoko dituen klausula bat izango da.

9.4. Datuak Babesteko Euskal Bulegoko administrazio-langileek eta Balorazio Batzordeko kideek lehiaketaren kudeaketan ezagutzen dituzten datu pertsonalen gaineko sekretua zaindu beharra dute.

9.5. Prozesuan zehar prozesuaren ondoriozkoak diren egintzak argitaratu beharra gertatzen bada, klausula bat gehituko da zerrenda horietan dauden datu pertsonalek datuak babesteko arloan egungo legedia bete beharko dutela esanez. Horretaz gain, informazio-paragrafo bat izango dute; bertan, adieraziko da zerrenda horiek argitaratzeko erabiltzen diren bitartekoak ez direla jendearen eskurako iturriak, eta ezingo direla ez osorik ez partez kopiatu, ez eta informazioa errekuaratzeko inongo sistemaren bidez transmititu eta erregistratu ere, ukituek eurek baimena eman ezean.

9.6. Interesdunak, datuak atzitzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, datuen eramangarritasunaren eta datuen tratamendua mugatzeko eta tratamenduei aurka egiteko eskubideak eta tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen erabaki baten objektu ez izateko eskubidea egikaritu ditzake Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71-3. 01008 Vitoria-Gasteiz) edo posta elektronikoko helbide honetan: avpd@avpd.eus.



I.1 ERANSKINA. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOKO HAINBAT LANPOSTU ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA.

Deitutako lanpostuak

LANPOSTUEN ZERRENDIA																
—Postua betetzeko baldintzak—																
—Atxikipena—																
Postua	Postuaren izena	Postu mota	Betetze era	ADM (1)	Talde (2)	Kidegoa (3) Eskala Aukera	Ber. Osag.	Dot.	HE	Derri. data	Esp.	D. O.-ren maila	Ber. Osag.	Dedikazio erreg.	Destinoa	Unitatea
008	Letratu instruktore-ikuskatzailea	N	L. L.	A.2-2/2004.	A	A01.010 A01 + 001		5	4	2022/12/31		27	II-B	% 100	Vitoria-Gasteiz	03
008	Letratu instruktore-ikuskatzailea	N	L. L.	A.2-2/2004.	A	A01.010 A01 + 001		6	4	2022/12/31		27	II-B	% 100	Vitoria-Gasteiz	03
008	Letratu instruktore-ikuskatzailea	N	L. L.	A.2-2/2004.	A	A01.010 A01 + 001		7	4	2022/12/31		27	II-B	% 100	Vitoria-Gasteiz	03

(1) ADM.

A2-2/2004: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioak eta lurralde historikoetako foru organoetako antzekoak eta, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioetakoak, Eusko Legebiltzarrekoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegikoak, Lan Harremanen Kontseilukoak eta, halakorik bada, Bulegokoak bertakoak, Ekonomia eta Gizarte Kontseilukoak, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilukoak, Ebazpen Batzordekoak eta 2.1/2004 Legeko 2. artikulua aipatzen dituen beste erakunde batzuetakoak.

(2) TALDEA.

Lanpostu zerrenda honetako sailkapen taldeek ez dute baztertzen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen aldi baterako hirugarren xedapenean aurreikusitakoak.

(3) Kidegoa/Eskala/Aukera:

A01: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko goi-mailako kidegoa eta lurralde historikoetako foru organoetako antzekoak eta, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioetakoak, Eusko Legebiltzarrekoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegikoak, Lan Harremanen Kontseilukoak eta, halakorik bada, Bulegokoak bertakoak, Ekonomia eta Gizarte Kontseilukoak, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilukoak, Ebazpen Batzordekoak eta 2.1/2004 Legeko 2. artikulua aipatzen dituen beste erakunde batzuetakoak.

A01 + 001: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Goi-mailako Kidegoa eta lurralde historikoetako foru organoetako antzekoak eta, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioetakoak, Eusko Legebiltzarrekoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegikoak, Lan Harremanen Kontseilukoak eta, halakorik bada, Bulegokoak bertakoak, Ekonomia eta Gizarte Kontseilukoak, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilukoak, Ebazpen Batzordekoak eta 2/2004 Legeko 2. artikulua aipatzen dituen beste erakunde batzuetakoak. Zuzenbideko lizentziaturako gaiei dagokienez, azterlanak egiten, ordezkaritza, administrazioan, txostenak egiten, aholkularitza, koordinazioan eta proposamenak egiten esperientzia izatea, zeina funtzio horiek hiru urtez egin izanak egiaztatu dezakeen (zuzenbideko lizentziatura izan eta AO1EU kidegotik datozen langileek egiaztatu behar dutena).



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

I.2 ERANSKINA. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOKO HAINBAT LANPOSTU ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA.

Parte hartzeko eskabidea

BETE BEHARREKO LANPOSTUAREN XEHETASUNAK			
Destinoko lantokia			
Izena			
D. O.-ren maila		Ber. Osag.	Postua
Dot.			
Hizkuntza eskakizuna		Derrigortasun data	

1 Datu pertsonalak

1. abizena	2. abizena	Izena	NAN zk.
Helbidea (zk. eta pisua)		Posta Kodea	Lurralde Historikoa ala Probintzia
Udalerria			
Telefona		e-posta:	

2 Datu administratiboak

Zein administrazio/erakundetako den:		
Administrazio egoera		Egoeraren hasiera data:
Taldea	Kidegoa	Teknikarien kidegokoa bada, espezialitatea

3 Legez ezinduak diren hautagaiak

Hala badagokio, proba egiteko behar diren egokitzapenak azaldu, idazki bat erantsiz.

4 Alegatutako merezimenduak

4.1 Administrazioan burututako lana

Lanpostuaren izena	Lanpostuaren kidegoa(k)	Pertsonaren kidegoa	Egoera	D. O.-ren maila	Noiztik	Noiz arte

4.2 Titulazioak

Tituluaren izena	Nork emana



4.3. Sakontze ikastaroak

Ikastaroaren izena	Orduak	Ikastaroaren izena	Orduak

4.4 Antzinatasuna

Administrazioa	Hil kopurua:

4.5 Gradu pertsonala:

4.6. Hizkuntza eskakizuna

Egiaztatutako hizkuntza eskakizuna edo baliozkotze egiaztagiria					
Bat ere ez	1HE	2HE	3HE	4HE	TG
Baliozkotze egiaztagiria izanez gero, adierazi zein					

4.7. Argitalpenak

Izena	Modalitatea

4.8. Irakaskuntza eta ikerketa

Mota	Izena	Orduak	Mota	Izena	Orduak

4.9. Hizkuntzak

Hizkuntza	B1 maila	B2 maila

5 Erantsitako dokumentazioa

	Erantsi da?		Dokumentu kopurua
Egindako lanaren egiaztagiria	BAI ☐	EZ ☐	
Titulu akademikoen kopiak edo egiaztagiriak	BAI ☐	EZ ☐	
Egindako ikastaroen kopiak	BAI ☐	EZ ☐	
Administrazioko antzinakotasunaren egiaztagiriak	BAI ☐	EZ ☐	
Graduaren egiaztagiria	BAI ☐	EZ ☐	
Egiaztatutako hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria	BAI ☐	EZ ☐	



Argitalpenen egiaztagiriak	BAI ☐	EZ ☐	
Irakaskuntza eta ikerketa jardueren egiaztagiriak	BAI ☐	EZ ☐	
Hizkuntzen egiaztagiriak	BAI ☐	EZ ☐	
2.3 oinarrian eskatutako baimena	BAI ☐	EZ ☐	

Eskabideari erantsita aurkezten ditut alegatutako merezimenduen egiaztagiriak, justifikazioak, fotokopiak, eta abar. Behean sinatzen duenak eskatzen du deialdian parte hartu nahi duela eta eskabidean adierazitako datuak egiazoak direla.

.....-(e)n, 2012ko..... aren(e)an

Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen Europako Parlamentuarena eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 13. artikulua xedatutakoaren arabera, interesdunek eman dituzten datu pertsonalak bakar-bakarrik deialdi hau kudeatzeko eta horri lotutako eginbeharrekin zer ikusia duten egintzak gauzatzeko erabiliko dira. Datu tratamenduaren arduraduna Datuak Babesteko Euskal Bulegoa da, eta bertako Idazkaritza Orokorrean baliatu ahal izango dira datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubidea.

Eskatzaileek berariazko adostasuna adierazten dute euren datu pertsonalak tratatu ditzaten deialdi honetan adierazitako moduan eta helbururako, bai eta datuak argitaratzeko ere, deialdiaren berezko izapideetarako.



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa

Agencia Vasca de
Protección de Datos

I.3 ERANSKINA. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOKO HAINBAT LANPOSTU ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA.

Administrazioko antzinakotasuna eta eskuratu nahi den lanpostuko eginkizunekin lotuta egindako lana egiaztatzeko eredua

ADMINISTRAZIOA / ENTITATEA ETA SAILA EDO ORGANISMOA

Jaun/andrea:

KARGUA:

ZIURTATZEN DUT: entitate honetan ditugun datuak ikusi eta gero, beheko funtzionarioak honako zerbitzuak dituela egiaztatuta:

1. Datu pertsonalak eta administratiboak.

1. abizena	2. abizena	Izena	NAN zk.	Taldea	Kidegoa	Teknikarien kidegokoa bada, espezialitatea	Gradu pertsonala
Administrazio egoera:		Egoeraren hasiera data					

a) Antzinakotasuna (kalkulua egiteko onartua)

Administrazioa		Hil kopurua	
----------------	--	-------------	--

b) Eskatzen den lanpostuko eginkizunekin lotuta egindako lana,

Lanpostuaren izena	Lanpostuaren kidegoa(k)	Pertsonaren kidegoa	Egoera	D. O.-ren maila	Noiztik	Noiz arte	Lanpostuko eginkizun nagusiak (atzeko aldean informazio gehiago idatz daiteke)

Eta egiaztagiri hau egiten du interesdunak hala eskatuta, aipatutako deialdian ondorioak izan ditzan

....., 2018ko..... aren



I.4 ERANSKINA. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOKO HAINBAT LANPOSTU ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA.

1 Letratu instruktore-ikuskatzailearen lanpostuko ezaguera eta trebetasun aipagarrien balorazioa.

BETE BEHARREKO LANPOSTUAREN XEHETASUNAK								
Destinoko lantokia		VITORIA-GASTEIZ						
Izena		Letratu instruktore-ikuskatzailea						
D. O.-ren maila		27	Lanp. mailako osag.	II-B	Postua	008	Dot.	5
Hizkuntza eskakizuna		4	Derrigortasun data					

BETE BEHARREKO LANPOSTUAREN XEHETASUNAK							
Destinoko lantokia		VITORIA-GASTEIZ					
Izena		Letratu instruktore-ikuskatzailea					
D. O.-ren maila	27	Lanp. mailako osag.	II-B	Postua	008	Dot.	6
Hizkuntza eskakizuna	4	Derrigortasun data				2022/12/31	

BETE BEHARREKO LANPOSTUAREN XEHETASUNAK							
Destinoko lantokia		VITORIA-GASTEIZ					
Izena		Letratu instruktore-ikuskatzailea					
D. O.-ren maila	27	Lanp. mailako osag.	II-B	Postua	008	Dot.	7
Hizkuntza eskakizuna	4	Derrigortasun data				2022/12/31	

1.1. Lanpostuaren misioa eta eginkizunik esanguratsuenak.

Misioa:

Zehatzeko, eskubideak babesteko eta arau-hauste prozedurei dagozkien izapidetze-egintzak burutzea, horretarako beharrezkoak diren espedienteak kudeatuz. Datu pertsonaldun fitxategiak ikuskatzea, bai eta fitxategi horiek dauden bulegoak ere; eta dagozkion aktak eta balorazio txostenak egitea ere bai. Irizpideak ezartzea datu pertsonalak babestearen arloko esparru juridikoan; lege-xedapenen eta administrazio ebazpenen proposamenak egitea; erreklamazioak eta errekurtsioak kudeatzea; herritarrek nahiz administrazio publikoek hala eskatuta, txostenak egitea eta horien kontsultei erantzutea ikuspuntu juridiko orokorretik nahiz arlo jakineko ikuspuntutik, eta DBEBn barruko lege aholkularitza eginkizunak burutzea.

Eginkizunak:

- Babes espedienteak, zehapen prozeduretako espedienteak eta administrazio publikoen arau-hausteen espedienteak izapidetzea.
- Legezketasun txostenak egitea.
- Jarduerak aholkatzea arlo juridikoan.
- Txosten juridikoak egitea arlo juridikoan.



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

- Administrazio ebazpenen proposamenak egitea arlo juridikoan.
- 2/2004 Legearen 2.1 artikuluan aipatzen den zeinahi fitxategiren eta dagozkien ekipamendu informatikoen (dauden lokaletan) instrukzio prozesuekin lotutako ikuskapenak egitea.
- Fitxategi informatikoekin zer ikusia duten jarduerak auditatzea juridikoki.

1.2. Lanpostuaren helburuak eta dimentsioak, ebaluatuko direnak.

Probaren xedea da hautagaiak lanpostuan aritzeko dituen ezagutza eta trebezien maila zehaztea.

Honako hauek dira probarekin ebaluatuko diren dimentsioak —lanpostuaren eginkizunik behinenetatik abiatuta—, eta hautagaiak lanpostuan aritzeko dituen ezagutza eta trebezien maila:

- Lanarekin lotutako berariazko eremuen gaineko ezagutza aditua.
- Informazioarekin, baliabideen erabilerarekin, helburuekin, eta abarrekin izandako zehaztasuna eta zorrotasuna.
- Gaitasun analitikoa, arazoak, informazioa eta konponbideak identifikatzekoa.
- Txostenak egitea, ondo egituratuta, ordenatuta, laburpenekin eta abar.
- Pertsonarteko trebetasunak.